

**EBAZPENA, GOBERNU IREKIAREN
ZUZENDARIARENA, GARDENTASUNARI ETA
HERRITARREN PARTE-HARTZEARI
BURUZKO XEDAPEN OROKOR BAT – LEGE
MAILAKOA – EGIN AURRETIKO KONTSULTA
PUBLIKOA EGITEKO DENA****RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE
GOBIERNO ABIERTO POR LA QUE SE
SOMETE A CONSULTA PÚBLICA PREVIA LA
ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE
CARÁCTER GENERAL -CON RANGO DE LEY-
SOBRE TRANSPARENCIA Y PARTICIPACIÓN
CIUDADANA**

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila XII. legegintzaldiko gobernu-programaren 148. konpromisoaren 1. ekimena sustatzeaz arduratzen da. Ekimen horren bidez, administrazio irekiagoa eta gardenagoa sustatu nahi da, kontuak denbora errealean emango dituen eta gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen lege bat onartzea ekarriko duena, administrazioaren gardentasuna bermatuko duena, herritarrek gai publikoetan parte hartzea sustatuko duena eta gobernu-programa betetzeko garatutako ekintzen eta ekimenen kontuak denbora errealean ematea erraztuko duena.

Lege-proiektu honen xedea eta helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduaren funtsezko ardatzak arautzea (ikuspegi instrumentalago batetik Sektore Publikoaren Lege Proiektuan xedatutakoaz harago, eta kargu edo enplegu publiko bat betetzen duten pertsonen printzipioen eta balioen ikuspegitik, 1/2014 Legean, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen zein Euskal Enplegu Publikoaren lege proiektuan xedatutakoaz harago). Zeharkako izaera duten irizpideak izanik, Gobernu Irekiaren gure ereduaren oinarriak ezarriko ditu, politika publikoen plangintza eta ebaluazioak, gardentasunaren bidez kontuak emateak eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eta lankidetzan aritzeak osatzen duten triangelu kontzeptualean oinarrituta. Helburua da gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-garapen iraunkorra lortzea, gobernuaren ekintzaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozial eta ekonomikoaren arteko orekan oinarrituta.

El Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno es el responsable de promover la iniciativa 1, del compromiso 148 del Programa de Gobierno de la Legislatura XII, que pretende impulsar una administración más abierta y transparente, que rinde cuentas en tiempo real, y que conlleva la aprobación de una Ley de transparencia y participación ciudadana, que garantice la transparencia de la administración, estimule la participación ciudadana en los asuntos públicos, y facilite la rendición de cuentas en tiempo real de las acciones e iniciativas desarrolladas en cumplimiento del programa de Gobierno.

El objeto y finalidad de este Proyecto de Ley es regular los ejes fundamentales del funcionamiento del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi (más allá de lo dispuesto, desde una perspectiva más instrumental, en el Proyecto de Ley del Sector Público, y desde una perspectiva de principios y valores de las personas que ejercen un cargo o un empleo público, en la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos y en el Proyecto de Ley de Empleo Público Vasco), en tanto que criterios de carácter transversal, poniendo así las bases de nuestro modelo de Gobierno Abierto, basado en el triángulo conceptual que conforman la planificación y evaluación de las políticas públicas, la rendición de cuentas a través de la transparencia, y la participación y colaboración de la ciudadanía en los asuntos públicos, y cuyo propósito es el logro de un desarrollo social, económico y ambiental sostenible, basado en el equilibrio entre la acción del gobierno, la sociedad civil y la actividad social y económica.



Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen esparru juridikoaren barruan.

Todo ello dentro del marco jurídico de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, izaera orokorreko xedapen arauemaile baten proiektua egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsona eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasoko da.

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto de disposición normativa de carácter general, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

Kontsultak alderdi hauek hartu behar ditu kontuan:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onarpenaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la norma.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakian xedatutakoaren arabera, xedapen orokorra izapidetzea sustatzen duen organo edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango du aurretiazko kontsultaren izapidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarkitaulan iragarkia jarri. Iragarki hori informaziorako eta izapideetarako sarbide segurua da, eta berariaz gonbidatzen ditu herritarrek aurrez adierazitako alderdiei buruzko iritzia eman dezaten. Era berean, informazio hori Legegunean jarriko da ikusgai, eta Gobernu Irekiaren plataformara –Irekia– bidaliko da.

De conformidad con lo dispuesto en el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 12 de diciembre de 2017, la cumplimentación del trámite de consulta previa podrá realizarla el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general mediante anuncio en el Tablón de Anuncios de la Sede Electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que constituye un punto de acceso seguro a la información y a la tramitación, invitando expresamente a la ciudadanía para que pueda pronunciarse acerca de la información que se expondrá, sobre los aspectos señalados anteriormente. Asimismo, la misma información se expondrá en Legegunea y se trasladará a la plataforma de gobierno abierto –Irekia–.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarilaren 19ko

En virtud de las competencias atribuidas por el artículo 13 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y

8/2021 Dekretuaren 13. artikulua emandako eskumenak baliatuz, honako hau

funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-mailako xedapen orokor baten proiektua egin aurretik, alde aurreko kontsulta publikoa izapidetzea.

Bigarrena.- Herritarrek, pertsona fisiko eta juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, interes ekonomiko eta sozialak ordezkatzeko dituzten elkarte eta erakundeek, eta xedapen orokorraren eraginpean dauden erakunde publikoek, hala nahi badute, ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazi ahal izango dituzte, hogeita egun balioduneko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

RESUELVO

Primero.- Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general, con rango de Ley, sobre transparencia y participación ciudadana.

Segundo.- La ciudadanía, bien personas físicas y jurídicas, entidades sin personalidad jurídica, asociaciones y organizaciones representativas de intereses económicos y sociales, e instituciones públicas afectadas por la disposición de carácter general, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Resolución en el plazo de veinte días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Gobernu Irekiaren zuzendaria/Directora de Gobierno Abierto

Javier Bikandi Irazabal

**Herritarrek Hartzeko eta Zerbitzu Digitalen zuzendaria
Director de Atención a la Ciudadanía y Servicios Digitales**

Gobernu Irekiaren zuzendaria ez dagoenez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz

Por ausencia de la Directora de Gobierno Abierto, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición adicional primera del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno

(Elektronikoki sinatua / Firmado electrónicamente)

ERANSKINA

1. Arau-ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak.

Gaur egun, demokraziaren kalitatea eta erakundeen legitimitatea politika, araudi eta emailta hobeen bidez areagotzeko, beharrezkoa da administrazio-kulturak nazioartean kontrastatutako gobernu irekiko eredu-erantzukizun-erakundea. Horretarako arau eta prozedurak zehaztu behar dira, honako ezaugarriak dituzten jardura-printzipioetan oinarrituta:

- Pertsona erreferentea izatea, Gobernuaren ekintzan partaide eta erantzunkide gisa identifikatuz, gizarte kritiko, zorrotz eta parte-hartzaile batean.

- Erakundeak informazioaren gordailuzain hutsak direla eta administrazio-organismoak gizarte zibilaren interesen kudeatzaileak baino ez direla hautematea, eta, ondorioz, autokritikara eta herritarren aurrean kontuak ematera ireki behar direla, jardura publikoa hobeto fiskalizatzeko.

- Administrazioa eskuragarriagoa, irekiagoa eta hurbilagoa, eraginkorragoa, efizienteagoa, arduratsuagoa eta, batez ere, gardenagoa izatea bere jardueran, zerbitzu publikoen kudeaketan eta kontuak ematean. Administrazioak herritarrek modu aktiboan parte hartzeko joera izatea eragiten dieten erabaki publikoak hartzeko prozesuetan eta funts publikoen erabileran. Horretarako, elkarreragiteko mekanismo iraunkorrak baliatu ditzake, elkarriketaren, negoziazioaren eta erabaki garrantzitsuenei buruzko akordioen bidez, eskaerak entzun eta artatzeko sareak sortuz, gerora ebaluatu eta berezko gisa har daitezkeenak, betiere prozedura bidegabeki oztopatu gabe.

- Herritarrei bermatu behar zaie beren datu garrantzitsuak erabili ahal izateko behar duten informazioa eskuratu ahal izango dutela. Jardura zehazteko beharra dakar, dauden beste

ANEXO

1. Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa.

En los tiempos actuales, para mejorar la calidad de la democracia y la legitimidad de las instituciones con mejores políticas, mejores normativas y mejores resultados, resulta preciso que la cultura administrativa evolucione hacia modelos de gobierno abierto internacionalmente contrastados. Ello conlleva la generación de normas y procedimientos que se basen en principios de actuación en los que:

- La persona sea un referente, identificándola como copartícipe y corresponsable en la acción del Gobierno, en una sociedad crítica, exigente y participativa.

- Se perciba que las entidades son meras depositarias de la información y los órganos administrativos sólo son unos gestores de intereses ajenos propios de la sociedad civil, y que, en consecuencia, se deben abrir a la autocritica y al control y rendición de cuentas ante la ciudadanía, para la mejor fiscalización de la actividad pública.

- La Administración sea más accesible, abierta y cercana, eficaz, eficiente, responsable y, sobre todo, transparente en su actividad, en la gestión de los servicios públicos y para la rendición de cuentas, y sea proclive a una participación activa de la ciudadanía en el proceso de toma de decisiones públicas que les afectan y en el manejo de los fondos públicos, a través de mecanismos permanentes de interacción por medio del diálogo, la negociación y el acuerdo sobre las decisiones más importantes, generando redes de escucha y atención de sus demandas para que se pueda evaluar y percibir como propia, pero sin lastrar indebidamente el procedimiento.

- Se garantice a la ciudadanía el acceso a la información necesaria para que pueda manejar los datos relevantes que le pertenecen, y conlleva la necesidad de explicitar su actividad,

bide batzuk gorabehera, zerbitzu publikoen arreta eta irispideari dagokionez informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek emandako tresnak erabilita gauzatuko dena; esate baterako, Gobernu Irekia-Irekia plataforma eta “Open Data”, datuak irekitzeko sistema. Horretarako, informazio egiazkoa, koherentea, egokia, kalitate handikoa eta azkarra eman behar da, sarbide errazeko zerbitzu baten bidez, Jaurkitzarekin elkarreaginean aritzeko kanal anitzeko bitartekoak gaituz eta une bakoitzean aukeratu nahi den kanalaren bidez, betiere bermatuta erabilera horrek ez duela eragingo herritarren arrakala bat, herritar batzuei sarbidea ezinezko egingo diena.

Gardentasunak, parte-hartzeak eta informazioa eskuratzeko berekin dakar, halaber, prozedura eta Administrazioa modernizatzea, karga burokratikoak murriztuz, bitarteko elektronikoak erabiliz eta izapidetutako prozedurei buruzko informazioa eta sarbidea bermatuz. Halaber, arauak, administrazio egintzak eta ebazpenak behar adina arrazoitu beharra eta horiei funtzionaltasuna, eraginkortasuna eta sinpletasuna eman beharra dakar, hizkera juridikoa aldatuz, laburra, zehatza, argia eta hartzailentzat ulergarria izan dadin, euskaraz zein gaztelaniaz, kalitatea hobetze aldera.

Azkenik, argi eta garbi adierazi behar da beharrezkoa dela ezagutza- eta kudeaketa-ingurune bat sortzea, administrazio-erakundeak plangintza egokiaren eta politikak eta zerbitzuak ebaluatzeko prozesuak sustatzeko behararen inguruan duen sentsibilizazioa eta gaikuntza sustatuz, eta, ondoren, ebaluazio-prozesuak eta horien emaitzak eta irismen handieneko inpaktuak jakinarazi eta zabaltuz.

2. Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Laburbilduta, gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legearen helburua da euskal administrazio publikoan gobernantza gardena, parte-hartzailea, inklusiboa eta arduratsua sustatzea, nazioartean partekatutako

que se materializará, con independencia de otros cauces existentes, utilizando los instrumentos proporcionados por las nuevas tecnologías de la información y la comunicación en la atención y acceso a los servicios públicos, como son, por ejemplo, la plataforma de “Gobierno Abierto-Irekia” o el sistema de apertura de datos “Open Data”. Para ello debe darse una información veraz, coherente, oportuna, de alta calidad y rápida a través de un servicio de fácil acceso, habilitando medios multicanal para interactuar con el Gobierno y por el canal que se desee elegir en cada momento, pero con la garantía de que su uso no generará una “brecha ciudadana” que haga el acceso imposible para una parte de la ciudadanía.

La transparencia, la participación y el acceso a la información implica también la modernización del procedimiento y de la Administración, con la reducción de cargas burocráticas, el empleo de los medios electrónicos y las garantías de información y acceso sobre los procedimientos tramitados; tener que motivar suficientemente y dar funcionalidad, eficacia y simplicidad a las normas y a los actos administrativos y resoluciones, modificando el lenguaje jurídico para que sea conciso, preciso, claro e inteligible por sus destinatarios, tanto en euskara como en castellano, para su mejora de calidad.

Finalmente, hay que proclamar con rotundidad que es necesario crear un entorno de conocimiento y gestión, fomentando la sensibilización y capacitación de la organización administrativa en la buena planificación y en la necesidad de promover procesos de evaluación de las diferentes políticas y servicios, y la posterior comunicación y difusión de los procesos evaluadores y sus resultados e impactos de mayor alcance.

2. Necesidad y oportunidad de su aprobación.

Sintéticamente expresada, la necesidad de una Ley de transparencia y participación ciudadana descansa en la pretensión de promover en la Administración Pública Vasca una gobernanza transparente, participativa, inclusiva y

Gobernu Irekiaren paradigma berrien gainean.

responsable sobre los nuevos paradigmas del Gobierno Abierto internacionalmente compartidos.

Euskal ordenamendu juridiko autonomikoan ez dago Konstituzioaren 105 b) artikuluko informaziorako eskubidearen lege-garapenik, ez eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen III. kapituluko informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen lege-garapenik ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13 c) artikuluan zabaldu zena, artxibo eta dokumentu administratiboetara sartzeari dagokionez.

En el ordenamiento jurídico autonómico vasco no hay un desarrollo legal del derecho a la información del artículo 105 b) de la Constitución y del derecho de acceso a la información pública del capítulo III de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, que se amplió en el artículo 13 c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en cuanto al acceso a archivos y documentos que se encuentren en los registros administrativos.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere ez da garatu informazio publiko sektoriala eskuratzeko oinarritzko legeria, bi gai zehatzetan: 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituenak, eta 37/2007 Legea, azaroaren 16koa, sektore publikoaren informazioa berrerabiltzeari buruzkoa, administrazioen esku dauden dokumentuen erabilera pribatua arautzen duena.

Tampoco se ha desarrollado en el País Vasco la legislación básica para el acceso a la información pública de tipo sectorial existente en dos materias concretas, que son la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente, y la Ley 37/2007, de 16 de noviembre, sobre reutilización de la información del sector público, que regula el uso privado de documentos en poder de las administraciones y organismos del sector público.

Era berean, jarrera propioa falta da, eta, hala badagokio, gardentasunean ez ezik, herritarren parte-hartzearen printzipioetan ere oinarritutako Gobernu Irekiaren ereduak jorratzen duen gai zabalaren garapena.

Falta igualmente un posicionamiento propio y, en su caso, un desarrollo de la amplia temática que aborda un modelo de Gobierno Abierto basado, no solo en la transparencia, sino también en los principios de participación ciudadana.

3. Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.

3. Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.

Lege-proiektu honen xedea eta helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamenduaren funtsezko ardatzak arautzea (ikuspegi instrumentalago batetik Sektore Publikoaren Lege Proiektuan xedatutakoaz harago, eta kargu edo enplegu publiko bat betetzen duten pertsonen printzipioen eta balioen ikuspegitik, 1/2014 Legean, ekainaren 26koa, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen

El objeto y finalidad de este Proyecto de Ley es regular los ejes fundamentales del funcionamiento del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi (más allá de lo dispuesto, desde una perspectiva más instrumental, en el Proyecto de Ley del Sector Público, y desde una perspectiva de principios y valores de las personas que ejercen un cargo o un empleo público, en la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de

dituenean zein Euskal Enplegu Publikoaren lege proiektuan xedatutakoaz harago). Zeharkako izaera duten irizpideak izanik, Gobernu Irekiaren gure ereduaren oinarriak ezarriko ditu, politika publikoen plangintza eta ebaluazioak, gardentasunaren bidez kontuak emateak eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeak eta lankidetzan aritzeak osatzen duten triangelu kontzeptualean oinarrituta. Helburua da gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-garapen iraunkorra lortzea, gobernuaren ekintzaren, gizarte zibilaren eta jarduera sozial eta ekonomikoaren arteko orekan oinarrituta.

Hona hemen arautu beharreko eremua, proposatutako araudiaren edukia izango dena:

- Xedapen orokorrak (xedea, helburuak, aplikazio-eremua eta printzipioak).
- Gardentasuna, jarduera publikoaren funtsezko aldaketa dakarrena, publizitate aktiboko betebeharrei eta informazio publikoa eskuratzeko bermeari dagokionez, kontuak emateko oinarri gisa.
- Herritarren parte-hartzea eta lankidetzak publiko-pribatua balio publikoa sortze aldera.
- Politika publikoen plangintza eta ebaluazioa; horren barruan sartzen dira, gobernu-ekintzari dagokionez, metatutako emaitzak eta horien eraginak zein kudeaketa-dinamika eraginkor berri eta iraunkor bat sortzeko bultzada irmoa, bai eta informazio gehiago jasotzen duen herritar batengan izango duen eragina ere.
- Eta, azken batean, administrazio irekiagoa eta herritarrentzat irisgarriagoa, arduratsuagoa eta eraginkorragoa eratzen laguntzen duten alderdi guztiak, gobernu demokratikoaren eta giza garapen iraunkorraren funtsezko betekizun gisa.

los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos y en el Proyecto de Ley de Empleo Público Vasco), en tanto que criterios de carácter transversal, poniendo así las bases de nuestro modelo de Gobierno Abierto, basado en el triángulo conceptual que conforman la planificación y evaluación de las políticas públicas, la rendición de cuentas a través de la transparencia, y la participación y colaboración de la ciudadanía en los asuntos públicos, y cuyo propósito es el logro de un desarrollo social, económico y ambiental sostenible, basado en el equilibrio entre la acción del gobierno, la sociedad civil y la actividad social y económica.

El ámbito a regular, que será el contenido de la normativa propuesta, es el siguiente:

- Disposiciones generales (objeto, fines, ámbito de aplicación y principios).
- La Transparencia, que supone un cambio trascendental de la actividad pública, en cuanto a las obligaciones de publicidad activa y a la garantía de acceso a la información pública como bases de la rendición de cuentas.
- La Participación Ciudadana y la Colaboración público-privada en la generación de valor público.
- La Planificación y evaluación de políticas públicas, que comprende su plasmación respecto a la Acción de Gobierno, de los resultados acumulados y sus impactos y el fomento decidido por generar una nueva y duradera dinámica de gestión eficaz, junto a su impacto en una ciudadanía más informada.
- Y en definitiva, todos aquellos aspectos que contribuyan a la configuración de una administración más abierta y accesible a la ciudadanía, más diligente y eficaz, como requisitos esenciales del gobierno democrático, y del desarrollo humano sostenible.

4. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Hainbat aukera daude proposatutako arauaren alderdiei heltzeko, euskal sektore publikoaren Gobernu Irekiaren kontzeptuak barne hartzen dituen gaiei dagokienez.

a) Ezer ez egitearen aukera ere kontuan hartuta, aukera egongo litzateke Estatuko oinarritzko legerian jasotako egungo araudia aplikatzeko, edo araudi hori egungo eskakizunetara eta gure berezitasunetara egokitu arte itxarotea. Horren ondorioa litzateke, legegintza-eginkizuna behar berrietara eta testuinguru teknologiko eta sozial berrietara egokitzeko garaian atzean geratzea, Gobernu Irekiaren kontzeptuak barne hartzen dituen eremu guztiak eta gure Administrazioaren eta sektore publikoaren berezko arazoei erantzun oso eta egokia eman gabe.

b) Lege berriak onartzea edo daudenak unean-unean erreformatzea, hainbat arau-tresna autonomoren bidez (sektore publikoko lege bat; gardentasun-lege bat; partaidetza-lege bat; ebaluazio-lege bat; administrazioa antolatzeke lege bat ...).

c) Kontuan hartzen ditugun gaiekin zerikusi zuzena duten erregulazio-beharrak ardatz nagusi iraunkorrak ezartzen dituen berariazko lege bakar batean sartzea, laster onartuko den Euskal Sektore Publikoaren Legearekin bat etorritz. Horri esker, koherentzia emango duen erreferentziatzko testu bat ezar daiteke Gobernu Irekiaren kontzeptu zabalari buruzko printzipio eta arau orokor trinkoagoak ezartzean, gardentasunean, herritarren parte-hartzean, lankidetzaren publiko-privatuan, politika publikoen plangintzan eta ebaluazioan oinarrituta, administrazio onaren eta gobernu onaren ikuspegitik.

Ohartarazi behar da egin nahi den lege-proiektu hau Europar Batasunaren 2000ko abenduaren

4. Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Existen diversas alternativas posibles para abordar los diferentes aspectos de la norma propuesta respecto a las materias que engloba el concepto de Gobierno Abierto del sector público vasco.

a) Incluyendo la opción de “no acción”, nos encontraríamos con la alternativa de aplicar la regulación actual contenida en la legislación básica estatal, o esperar a que ella se adapte a los requerimientos actuales y a nuestras propias especificidades. La consecuencia de ello sería situarse a remolque a la hora de adaptar el quehacer legislativo a las nuevas necesidades y contextos tecnológicos y sociales, sin abordar tampoco de forma completa todos los ámbitos que comprende el concepto de Gobierno Abierto y tampoco de forma completamente satisfactoria a los problemas que son propios a nuestra Administración y sector público.

b) Aprobar leyes nuevas o reformar puntualmente las ya existentes, a través de diversos instrumentos normativos autónomos (una ley del sector público; una ley de transparencia; una ley de participación; una ley de evaluación; una ley de organización de la Administración...).

c) Incluir las necesidades de regulación intrínsecamente conexas sobre las materias que consideremos en una única ley específica que establezca unos ejes principales duraderos, y en coherencia con la próxima Ley del Sector Público Vasco a punto de aprobación. Ello permite establecer un texto de referencia que aporte coherencia al establecer los principios y normas generales más intensas sobre el concepto amplio de Gobierno Abierto, basado en la transparencia, la participación ciudadana, la colaboración público-privada, la planificación y la evaluación de políticas públicas, en clave de buena administración y buen gobierno.

Cabe advertir que este Proyecto de Ley que se pretende también se basa en los principios

7ko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako printzipioetan ere oinarritzen dela. Gutunaren 11. artikuluan adierazpen- eta informazio-askatasuna aitortzen da, 41. artikuluan, administrazio ona izateko eskubidea, eta 42. artikuluan, erakundeen dokumentuetara irispidea izateko eskubidea, euskarria edozein dela ere.

Era berean, 2001eko uztailaren 25eko Europako Gobernantzaren Liburu Zuriaren gomendioetan oinarritzen da. Liburu horrek gardentasunari eta informazioari buruzko neurriak aldarrikatzen ditu, gizarte zibilarekin interakzioan aritzeko, eta bost printzipio berri ezartzen ditu, irekitasunari, parte-hartzeari, erantzukizunari, eraginkortasunari eta koherentziari buruzkoak, demokraziaren eta gobernu onerako eskubidearen bermearen oinarri gisa, administrazioek beren eguneroko jardunean erabiltzen dituzten prozedurei dagokienez, demokraziaren kalitatea eta politika hobeak, araudi hobeak eta emaitza hobeak dituzten erakundeen zilegitasuna hobetzeko.

recogidos en la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea de 7 de diciembre de 2000, que reconoce en su artículo 11 la libertad de expresión y de información, en su artículo 41 el derecho a una buena administración, y en su artículo 42 el derecho de acceso a los documentos de las instituciones, cualquiera que sea su soporte; y en las recomendaciones del libro blanco de la Gobernanza Europea de 25 de julio de 2001 que proclama las medidas sobre transparencia e información para la interacción con la sociedad civil y los cinco nuevos principios de apertura, participación, responsabilidad, eficacia y coherencia, como base de la democracia y garantía del derecho al buen gobierno, respecto a los procedimientos que utilizan en su práctica diaria las Administraciones, para mejorar la calidad de la democracia y la legitimidad de las instituciones con mejores políticas, mejores normativas, mejores resultados.